

## **Aztergaia: Ebaluazio jardunbideak**

DigCompOrg markoaren aztergai honek adierazten du ikaskuntza digitalerako teknologiek zer-nolako eginkizuna betetzen duten ebaluazio-eredu integratuan laguntzen, ikasleen esperientziei eta lorpenei buruzko informazio garrantziduna eta zehatza emanaz alderdi interesdun guztiei. Ebaluazio-aztergaiak barne hartzen ditu ikaskuntzako erakundeek kontuan har ditzaketen neurriak ebaluazio tradizionalaren balantzea pixkana jardunbide-katalogo zabalago baterantz eramateko. Katalogo horrek barne hartuko ditu arreta ikaslearengan jartzen duten ebaluazio-jardunbideak, pertsonalizatuak, benetakoak, integratuak eta garrantzidunak, kontuan hartu ahal izango dituztenak agertoki formal, informal eta ez-formaletan garatutako gaitasunak, ezagutza eta trebetasunak ere.